

bidegileak



Joxe Mari Aranalde (1933-2005)

Egilea:

JOXEMARI IRIONDO

Gazteluko kabileroa

*L*alduna ez, baina bai benetako kabileroa huraxe. Gipuzkoako Gazteluko Apaiztegi-onuzkoa baserrian jaio zen, 1933ko martxoaren 27an, goizeko berderatzietan, hango bataio-agiriak dioenez. Eta, «apaiz honek baietz ehun urte harrapatu!» esan zion gure lagun on batek, osasun ederra zuela ikusita. Baina ederki engainatu gintuen! Bi hilabete t'erdian eraman zuen beste bi hilabete inguruan isilik eduki zuen sarkoma gaiztoak.

Ostiralean, irailak 23, bere senide eta lagun talde batekin afaria egitekotan zen Leaburuko jatetxean. Eta anaia Luis bila joan zitzaionerako ohetik jaiki eta txukun-txukun jantzita prest zegoen,



Joxe Mari Aranalde Olaondo (1933-2005)

beti bezala. Baina, «Goazemak, ordua diagu-eta!» esan zionean, «Ez, joan zaitezte zuek, eta ondo jan-edan egin nire kontura. Zeharo ahulduta niagok. Baina zuek ondo pasatu, tristeziarik gabe!», eskatu zion. Bazekien heriotza hurbil zuela, eta koinata Lurdesekin gelditu zen etxean, bakarrik. Hurrengo egunean, 2005eko irailak 24, eguerdiko ordu biak laurden gutxi aldean hil zen. Eta, berak eskatu bezala, jaioterriko kanposantuan lurra eman zioten astelehenez, irailaren 26an.



Gazteluko herria

«Horrenbeste jende bildu ote da sekula Gaztelun?», esan zidan Pello Esnal lagunak herrira heldu ginenean. Izan ere, ehunka, milaka gizon-emakume ezagun eta ezezagun bildu zen han, Joxe Mariren senide eta ahai-deak, apaiz lagunak, Gipuzkoako Gotzain jauna, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta ordezkariak, Euskaltzainburua eta euskaltzai-

nak, Gipuzkoako Ahaldu nagusia, Aranalderen lankide eta ikasle ohiak, bertsolariak eta bertsozaleak, idazleak eta euskal kultura alorreko jendea, eta hantxe ehunka herritar soil, denak triste eta kopetilun. Bazekien ondo maite genuela, baina hainbeste maite genuenik ez, elizkizunean Amurizak zioen bezala:

Merezi huen mundialdi hau
gozatzea luzeago,
joateko ere gertu hintzena
hilkorren mugaz harago.
Xalbador ezker, Orixe eskuin:
bake txarrean ez hago.
Maite hindutenak asko gintuan,
heuk uste baino gehiago,
eta segiko haugu maitatzen
nahiz urteak igaro.

Gizaseme dotorea, nortasun eta bihotz handikoa, eskuzabala, laguntzailea eta maitagarria zen Joxe Mari, hasi burutik eta hanketara inokoa kabaileroa. Eta mirespen horixe erakutsi genion astelehen arratsalde eguzkitu baina triste hartan, askok bere alde otoi eginez, edota merezi zuen atsedean gozoa opaz, besteek.

«Bizitza honetan asko hartu diat, eta horregatik eskerrak ematen pasa nahi dizkiat gelditzen zaizkidan urteak!», esan zigun el-karrizketa batean. Eta azkenengo bi hilabete inguruan hainbat lagundu zioten medikuei, erizainei, lagunei, senideei eta inguratu zitzaizkion guztiei eskerrak emanez hil zen bihotz handiko gizon hura. Bere senideen, eliztarren, lagunaren eta ikasleen arazoak konpontzen bizitza osoa pasatu zuenak, hori dena eta gehiago merezi zuen, noski.

Orixeren oroitarrian



Gurasoak, Migel, Joxe Mari, Petra eta lagun batekin



Haurtzaroa

Felix Aranalde Maritxalar eta Maria Olaondo Ormaetxeak mundura ekarri zuten familia handi hartako hirugarrena zen Joxe Mari. Frantziska Joakina (1930-1984) eta Mikel Joakinen (1932-1996) ondorengoa; eta Petra (1935), Luis Pedro (1936-1939), Luis Pedro (1940), Andres (1941), Lorentzo (1944), Bernardo (1945-1946), Joakin (1946) eta Inazioaren (1947) aurrekoa, hain zuzen.

Senide artean oso elkar maiteak izan dira Aranaldearrak. Eta 1962an hil zen aitaren-

tzat maitasun eta itzal gozoa izan zuten beti; eta bere azkenengo urteetan Joxe Marirekin bizi izan zen ama Mariarentzat, berriz, maitasuna eta mihaspen osoa. Ez dago «Ama nere» izenburuarekin (*Bihotzak dion hura - Auspoa* 258) Joxe Marik idatzi zuen bertso sail ederraren hasierako ahapaldi huraxe irakurri besterik:

Anaiei lo harrarazten ikasi nuen aire xamurrean, kantari hastera noa, ama, berorren gorazarrean. Neretzako bakarrik bederen, nago esan beharrean nolako zerua izan dudan nik berorrekin lurrean.



Futbol taldearekin Gasteizko Seminarioan. Zutik bigarren J.M. Aranalde

Apaiz-bidean

Mutikotan lehenengo ikasketak herriko eskolan egin zituen, Uxueko Mariarekin, eta erbestetuta Gaztelura bidali zuten Gabino Zelaia maisuarekin. Gero, berriz, Tolosako mojetara bidali zuten, zerbait gehiago ikas zezan. Baina hamahiru urtera arte han egin ondoren, apaiz izan nahi zuela esan zien gurasoei. Eta Saturrarango apaizgaitegian sartu aurrez Donostiako Mirakontxako *Preceptoría* zeritzon moja-etxera joan zen urtebete inguruan, gaztelera pittin bat ikasteko-edo, baserriko mutiko gehienek egiten zuten bezala.

Baina hangoak erraz gainditu eta Saturrarango itsasertzeko etxera bidali zuten, 1946ko udazkenean. Urte ederrak pasatu zituen han, ikasi, solas egin eta errezatu. Baina hangoak ere egin eta Gasteiza bidali zuten, 1950eko

udazkenean, bosgarren ikastaroa egiteko. Hiru urte egin zituen han, gero berriz ere Gipuzkoara itzultzeko, 1953 urtean, Donostiako Seminario berrian bere ikasketak burutu eta meza eman zuen arte.

Ikasi baino zerbait gehiago egin behar izan zuten ordea Donostian, esaten dutenez, etxe handiak neke handiak izaten ditu-eta, zaharrek zioten bezala. Eliza berriko sabaia franko eman zion broma eta txantxetan «grupo zuloeta» (Aldaregia, Aranalde, Artamendi, Atxaga, Eguren, Etxabe...) deitu talde hari. Goizeko elizkizunak eta lehenengo klaseak amaitu ostean, mailua eta zizela hartu eta kapila berriko sabaia metro erditik metro erdira zulatu behar izan zuten. Lodian ia metrokoa zen hormigoizko horman ere egin behar izan zuten atearentzat zuloa, burniziri eta borra hutsez. Leher egiten omen zuten, baina borroka-saio ederrak



Futbol taldearekin Seminarioan



D. Joan Martin Irulegirekin Donostian

ere bai, gaztetasunak ematen duen indarra eta sasoia probatuz. Nekez izan omen zitekeen haiexek ziren baino zoriontsuagorik.

Ikasle ona zen Joxe Mari, oso formala. Ikas-
teko, hitz egiteko, otoitz egiteko, jateko, jola-
serako eta zeregin bakoitzerako ordu jaki-
nak izaten zituzten, eta eginbehar horietako
bakoitza zuzen errespetatzea gustatzen zi-
tzaion. Jolaszalea bai, baina zintzoa eta serioa
zen, ez endredamakila horietakoa. Ikasten,
berriz, tinko ibiltzen zen, erraz eta ongi, bere
ikaskide izan zirenek esaten dutenez. Bestal-

de, berak esana da Filosofia, Teologia eta Li-
teraturaren ederrak eta graziak erabat lilu-
ratu zutela urte haietan.



Atxaga eta Aranalde Lourdesen, 1958an



Lagunekin gogo-jardunetan

Aramako apaiz

Urteak erraz eta arin joan zitzaizkion; eta 1957ko udan subdiakonutza ordena hartu zuen. Urtebete beranduago, 1958ko ekainaren 1ean, apaiz ordenatu zuen Gipuzkoako elizbarrutiko gotzain Font i Andreu jaunak. Ospakizun handi hura Lourdesen izan zen, hango Andre Maria agertu zeneko mendeurrena betetzen zen-eta. Ez zen berriketa: Berrogei gazte gipuzkoar ordenatu zituen gotzain jaunak.

Meza berria Gaztelun eman zuen Joxe Marik, ekainaren 8an, herriko parroko Lukas Dorronsoro jauna zela, eta garai batean Gazteluko parroko izan zen don Tomas Otaegi sermoigile. Handik laster, 1958ko uztailaren 28an, Aramako erretore izendatu zuen gotzainak. Eta arreba Petrarekin joan zen Goierriko txoko hartara. Bizilagun eta sukaldari onarekin, alegia, apaiz-legeak eskatzen duen bezala, «Apaizaren lapikoa, txikia baina gozoa» baldintza ongi bete zedin.

R. Aranburu, A. Garro, J.M. Aranalde, M. Atxaga



Osaba Orixerekin (1958)



Meza berri egunean, Gaztelun



M.Etxebarria, J.M.Aranalde, Joxe Agirre *Alkiza*



Atxaga, Alkiza, Ormaetxea eta J.A. Illarregirekin 1957an Leitzan Orixe euskaltzain egin zuten egunean



Meza berri egunean familiarekin



Meza berri egunean herritarrekin, askotan bezala



Aranalde, Lekuona, Aldaregia, Irigoyen eta Agirre

Aramara heldu zenean, zera esan omen zion bere aurrekoak: «Begira, Joxe Mari: hasitakoari jarraitu beste lanik ez daukazu hemen». Gaztetasunez eta lanerako irrikatzen zihoan ordea Aranalde, eta lan asko egin zuen elizan eta eliztarren artean. Ameriketatik etorri eta, batetako Orexan zela eta besteko Lazkaoko Beneditarretan zela, erdi galduta zebilen Nikolas Ormaetxea *Orix*e osaba ere Aramako beren etxean hartu zuten, bere eskariz, eskasia larrian bizi zen-eta gizon harrigarri hura. Bi aho betetzen ziren tokian hiru ere bete zitezkeela pentsatu zuten, oso ondo bazekiten ere osaba jatun ikaragarria zela, eta beste biek adina beharko zuela hark, seguru asko. «Etorri al zera, osaba? Bazenuen garaia!», esan omen zion Joxe Marik, diosala bere modura eginez.

Hamabost hilabete egin zituen Aranaldek Araman, Añorgako apaiz laguntzaile eta Zabalegiko Nekazari Eskolako gazteen arduradun izendatu baitzuten 1959ko abenduaren 7an. Eta Zabalegin bizi izan ziren gero, Añorgako eliztarrenak eta Zabalegiko Nekazari Eskolako baserritar gazteen hezkuntza-lanak eginez. Osaba ere hantxe eduki zuten, 1961eko abuztuaren 9an hil zen arte.

Gero, hogeita hamar urte inguru gazteei irakasten egin eta Santo Tomas Lizeoan erretiroa hartu zuenean, Belauntza eta Leaburuko apaiz izendatu zuen don Jose Maria Setien gotzainak, 1999ko uztailaren 26an. 2002ko urtarrilaren 22an, berriz, Tolosako Yurramendiko Zaharren Egoitzako kapilautza ardura eman zion Juan Ma-



Gurasoekin, meza berri egunean



Orixeren hileta Polloen, 1961.09.10ean



Orixeri lurra ematea Polloen, 1961.09.10ean

ria Uriarte gotzain jaunak, sasoiko eta lanerako borondatez beteta zegoela ikusita. Gustuko tokian aldaparik ez harentzat, eta ez zuen erretiroa hartu eta lasai bizitzeko asmorik ere. Lan horiek guztiak eginda gero, bere lagunak bisitatzeko, Galarretan pilota partiduren bat edo beste ikusteko, astean pare bat aldiz anaia eta lagunekin pilotan serio jokatzeko, Euskaltzaindi-

ko Herri-Literatura batzordera zuzen joateko, han-hemen egiten ziren lagun eta ezagunen ospakizunetan eta hiletetan parte hartzeko, hitzaldiak emateko, liburuen aurkezpenetara joateko, apaiz lagunekin egunpasak antolatzeko, bertso-jaialdira joateko, denerako adina asti ateratzen zuen hark nonbaitetik. «Mutil zahar izatearen grazia» zela hori esan ohi zuen, umorez.



Familiarekin, 1955ean

Irakasle

Arestian esan bezala, hamahiru urte inguru egin zituen Añorgan apaiz eta Zabalegi Nekazari Eskolako ikasle berritarren arduradun, 1959ko udazkenean hasi eta 1972 arte. Baina garai hartan Santo Tomas Lizeoan (Donostia) irakasleak behar zituztela eta hamalau-hemezortzi urteko neska-mutilei Giza Hezibidea eta Filosofia irakasteko eskaintza egin zioten, eta hantxe sartu zen buru-belarri, Añorgako parrokoak beste esku batzuetan utzita. 1972ko urriaren 1ean hasi zen Santo Tomas Lizeoko irakasle-lanetan, eta hogeita bederatzi edo hamar urte inguru egin zituen, biziki maite zituen neska-mutilen



hezkuntzan, 1997ko urtarrilaren 28an erretiroa hartu zuen arte. Hobeki esan, hark ez zuen inoiz erretirorik hartu. Lanerako kontratua amaitu zitzaion, baina, hala ere, ondorengo bi-hiru urtean Lizeoko bere lankide ohiei laguntzen jarraitu zuen, ezin ahaztu zituen-eta bere bizitzaren zati handi bat ziren hango irakasle eta ikasleak. Gero ere, Lizeoko ikastaroen hasiera eta amaierako jaietan, edo hango ospakizunetan nekez huts egingo zuen hark bizi zen arte. Biziki maite zuen hango giroa, eta

ahoa betetzen zitzaion Lizeoko kontuak esaten hasten zenero. Neska eta mutil ikasle gazteen artean eroso eta gazte sentitzen zen, bere benetakoko ume maiteak haiexek zirenetan, gutxi izaten diren bezalako umezalea baitzen. Goizero Lizeora iristean ikasleei, egun on!, esatea gutxi samar iruditzen, eta esku ematen zien mutilei, banan-banan; eta neskatxei, eskuan muin. Errekreo denboran-eta erdi ezkutuka zigarrotxo bat eskatzen zionari nekez ukatuko zion, eta inoiz edo behin bokadilo eske joaten zitzaionari, nekezago. Hala ere, askotan aitortu zuen erakutsi baino gehiago ikasi zuela Lizeoan egindako hogeita hamar urte inguruan, gazteak izan zirela bere benetakoko maisu, alegia.



Aranalderen bertsoak

Idazle

Apaizgai zela hasi zen idazten, batez ere asko maite zituen bertso eta poesiak idazten. Eta sari bat baino gehiago ere jaso zuen. Besteak beste, honako hauek bai behintzat:

—*Hirutasun-ispilu*. 1956ko udazkenean Aran-
tzazun antolatu zuten sariketa batera bidali
zuen izen hori zeraman bere lehenengo po-
esia lana, «Ama Birjinaren sortzezko garbita-
suna» gai zuela. Harrigarri ez denez, apaizgai
gazte baten bihotz-taupadak ziren, noski. Eta
poesia harekin batean prosan egindako bes-
te idazlan bat ere bidali zuen, eta accesita
eman zioten bigarren hari. Poesia, berriz, isi-
lik pasatu zen, saririk gabe.

—*Agur, Tokaio!* Lizardiren omenaldia antolatu
zuten Tolosan, 1961ean, eta beste ospakizu-
nen artean, poesia lehiaketa ere bai haren
gorazarrez. Han ere bigarren saria eman zio-
ten Gaztelukoaren idazlanari. Lehenengo sa-
ria, osaba Orixeri eman zioten; eta hiru-
garrena, berriz, Lukax Dorronsorori.

—*Jainko-aurpegi gurean*. Hil eta handik pare bat
urtera, 1962an-edo, Orixe handiaren omenez
Tolosan egindako lehiaketa batean, berriro, bi-
garren saria irabazi zuen. Lehenengoa Gabriel
Arestiri eman zioten; eta hirugarrena, berriro,
Lukax Dorronsoro atandarrari.

Osaba Orixeren biografia bat ere idatzi zuen
elkarlanean, 1965ean; baita haren *Jainkoaren
bila* liburuari hitzaurrea egin ere ederki asko.

Hurbileko ezagutza zuen, eta pozik egin zuen lan huraxe. Sendoa argitaletxea eta Antonio Zavalaren eskariz, beste liburu hauek ere argitaratu zituen, *Auspoa* sailean: *Xalbador pertularia* (Auspoa 240, 1996); *Xalbador, Txirrita* bilduman ikastolako neska-mutikoentzat; *Bihotzak dion hura* (Auspoa 258, 1999); *Bertso kontuak* (Auspoa 264, 1999), *Deia* egunkarian argitara emandako artikulua-sortarekin; *Xalbadorren barrua* (Auspoa 274, 2001); «Juan Inazio Goikoetxea *Gaztelu*», *Bidegileak* bildumako ale bat eskaini zion bere herriko poeta finari, 2002 urtean.

Joxe Mari ez zen kazetaria, baizik idazlea. Eta hala ere, 1970ean hasita aldi behin *Zeruko Argia* astekarian gai ezberdinei buruz egindako bere idazlanak ere gogoratu beharko genituzke. Edota 1986tik 1990era *Deian* idazten zituen artikulua, bertsolariak eta bertsolari-tza gai hartuta.



Itzulpenak

Lorentzo Bereziartua gotzain jaunak aginduta, 1961ean hasi zen don Manuel Lekuona liturgia euskaratzeko batzordeak antolatzen. Eta Joxe Marik ere hogeit bat urte egin zituen lan hartan. Taldeko gazteena zen, baina bai ausera eta laguntzaile ona. Gaztelukoak euskal sena berezia zuela latinezko esaldiak-eta itzultzeko entzun izan diot orduko zenbait lankideri. Izango zuen, etxean maisu ona izan zuen-eta hark. Erraz eta aise aurkitzen omen zituen itzulpen argiak egiteko ordezkorik erosoena. Herri-Literatura batzordeko lagun eta lankide Pello Esnal argiak, 2005eko irailaren 28ko bere zutabean ederki laburbildu zuen haren ekarpen ezin egokiagoa:



Elizako testuen euskaratzaile izaki, han ari omen zinetan, talde-lanean, Gloria euskarazten, latinezko «laudamus te, benedicimus te, gratias agimus tibi... » haien ordain egokia aurkitu ezinik, gogorregiak izan nonbait «goresten zaitugu, bedeintzatzen zaitugu, ahuspez agurtzen zaitugu, eskerrak ematen dizkizugu...». Eta, orduan, hik: «gora zu, bedeinkatua zu, gorespen zuri, ahuspez agur, eskerrak zuri...». Itzulpen biribilagorik!

Beste itzulpen asko ere egin zuen, noski; baina haietako asko ezezagunak dira gaur egun, egin eta itzultzailearen izenik jarri gabe argitaratu eman baitziren. Hala ere, Etor argitartxeak aspaldi plazaratu zuen Margo Ederdun Enziklopedian argitaratu zuen *Hegaztien mundua* zeritzona, eta *Tintin Ameriketako komikiaren* (1970) aleetako bat aipatuko ditugu, ezinbestean.

Hizlari egokia

Hitz-etorri ederrekoa zen, patxara handiko hizlaria, une bakoitzean ahots-modulaketa, erretorika eta irakaslearen mimika ongi zaintzen zekiena. Aktore handi bat zen hizketan ere. Hain zuzen, hitzaldi batean ezagutu genuen, 1962ko azaroan, Donostiako liburutegi batean, «Lehenago zenbait bertsolariren euskara traketsa» gai hartuta. Astindu zituen ederki Mendaro Txirristaka, Udarregi, Pello Errota eta abar!

Hitzaldi hura amaitu zenean hitz egin nuen nik lehenengo aldiz Aranalderekin. Eta biziki gustatu zitzaidan, bertsolari zaharren hizkuntzari buruz han esan zituenekin guztiz bat ez banentorren ere. Eta hantxe hasi eta 2005eko irailaren 22ean harekin azkenengo aldiz hitz egin nuenera arte, auskalo zenbat solasaldi eta



Loiolako Kultur etxean, Bartolome Aierberen liburuaren (Auspoa) aurkezpenean

eztabaida egin genuen. Eta zenbat ordu elkarlanean, Euskaltzaindiko Herri-Literatura batzordean, 1979, 1982 eta 1986eko Bertsolarien Txapelketa nagusiak eta lehiaketak antolatzen, jaialdiak prestatzen, bertsolariei gaiak ematen eta abar. Baina elkar-lan hori dena gaixotasun zakar batek eten zuen. Irailaren 22ko hartan, «Ez diat etsiko, ez! Sendatuko nauk, eta hasiko gaituk berriz ere!» agindu zidan. Baina beste modu batean lagundu beharko digu orain!

Aranaldek ehunka, milaka hitzaldi eman zuela esatea gauza gutxi esatea da, seguru asko. Izan ere, hizlari egokia izateaz gainera apaiza izaki, Jainkoak bakarrik dakike zenbat hitzaldi

eta gogo-jardun emango zuen hark. Alabaina Euskaltzaindiko Herri-Literatura batzordeak antolatutako jardunaldietan emandako batzuk bakarrik azpimarratuko ditugu hemen:

1998ko azaroaren 13an, Tolosan: «Orixeren *Euskaldunak* eta festa-giroa»; 2001eko jardunaldietan, Tolosan, «Genio y lengua, euskal arima, Orixeren *Euskaldunak* poeman»; 2002ko azaroaren 28an, Eibarren, «Herriaren memoria lanbidez lanbide berritzen, Orixeren *Euskaldunak* poeman»; 2004ko urriaren azkenengo igandean, *Xalbador Eguna* zela eta, Urepeleko parrokian eman zuena ere aipatzekoa da, *Odolaren mintzoa* liburuaren hirugarren argitalpenean.

Bertsozalea

*G*azteluko kabaileroak bihotzez maitezituen bertsoa, bertsolaria eta bertsolaritza. Baina ez omen zekien zerk liluratu zuen aurrena, gizonak ala bertsolariak. Zena zela, hamaika ordu, hamaika ibili egin zuen bertsoaren eta bertsolarien inguruan, beti bertsoaren ederra eta bertsolarien onbeharrez, gure bertsolaritza bikaindu eta jendeari zerbait duina eskaini nahirik, gai-jartzaile onaren zeregina horixe dela uste baitzuen.

Baina nondik eta nola zuen bertso-grina hori? Gurasoek taberna koskorbat omen zuten Gazteluko udaletxean, eta hantxe bertsozaletu zen. Sei edo



Aranalde etxean, bertso kantari

zazpi urte zituela, «Gazteluko Martintxo bertsolari zaharrari entzuten egon ohi ginen, aita zenarekin, Martintxo hark zuen ahots egokia, eta haren arrazoiaren sendotasuna eta edertasunarekin harrituta» —esaten zuen. Gurasoen tabernan askotan entzuten zituen bertsoak, auzoko gizonak feriatik-eta ohi baino gehixeago argituta zetozenean. «Zenbat aldiz joan ote ginen penatan ohera bi anaiok, gizonak eztarriari eraginda bertso-tan hastera zihoazenean!» —eransten zuen. Koskortu eta idazten hasi zenean ere, ber-

tsoak idatzi zituen lehendabizi. Eta Joxe Agirre *Alkiza* apaiz lagunarekin jardun omen zuen inoiz, bertsoak aurrez idatzi, buruz ikasi eta gero jendearen aurrean kantari.

Hala ere, bertsolariekin harremanetan serio hasi, 1958ko irailean hasi zen, Aramako apaiz izendatuta gero. Izan ere, Ordiziako bertsolarien sariketa batean epaimahairako gonbidatu zuten, osaba Orixe, Manuel Lekuona, Basarri eta berak artean ezagutzen ez zuen Jesus Lete *Ibai-ertzekin* batera. Gero, zenbat aldiz izan ote zen bertsolarien epaimahaiko, bertsolarien txapelketan, bertso-paper-sariketan eta abar, antolatzaileek halaxe eskatuta? Besteak beste, Orixeko *Orixe bertso-paper-sariketan*, Zarauzko *Basarri bertso-paper-sariketan*, Lazkaoko *Lazkao Txiki-sariketan* eta abarretan mahaiko izan ohi zen beti. Eta bat-bateko bertsolarien lehiaketak gogoratzean, Zarauzko *Bertsolari Gazteen Lizardi-sariketa*, Idiazabalgo *Zepai-sariketa*, Gipuzkoako *Eskolarteko Bertsolari Gaztetxo*en txapelketa eta abar datozkigu gogora.

Beste sariketa askotako antolatzaile izan zen Joxe Mari, gogoan dugunez: Añorgako *Orixe Saria* sariketan, adibidez, bera arduratu ohi zen artero sariketaz, antolaketaz, gaiak jarri eta epaimahaia izendatzeaz eta abar, Añorgako bertsozaleekin elkarlanean, 1972an hasi eta azkenera arte.

Bestalde, 1967ko Bertsolarien Txapelketa nagusiak sortu zuen zaputxaldi eta etenaren



Aranalde gaiak jartzen Lizaso eta Orandari

ostean, 1979an berriro Euskaltzaindiak antolatu zuen Bertsolarien Txapelketa Nagusia 1979 lehiaketan antolatzaile, gai-jartzaileen batzordeko eta epaimahaiko izan zen, Fernando Artola *Bordari*, Antton Aranburu, Jesus Mari Etxezarreta, Alfonso Irigoien, Mitxel Itzaina, Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi, Juan San Martin eta Antonio Zavalarekin batera, 1979ko udaberrian hasi eta 1980ko urtarrilaren 6an azkenengo jaialdi nagusia Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan egin zen arte. Eta beste horrenbestexez egin zuen 1982ko maiatzaren 8an Hernanin (Galarreta) hasi eta urte hartako abenduaren 19an Donostian burutu zen 1982ko Txapelketa nagusian ere.

Hain zuzen, Amuriza izan zen txapelaldun bietan, eta bertsolari bat baino gehiago mindu zuen horrek nonbait. Hala behintzat, aurreko

bi lehiaketako talde berbera 1986ko txapelketarako antolaketak egiten 1985ean hasi ginenean, eztabaidak eta aitzakiak sortu ziren, eta beste esku batzuetara pasatu ziren bertsolarien arteko lehiaketa-kontuak, bakeak gehiago balio zuela-eta. Zorioneko erabakia huraxe!

Bertso-jaialdien aurkezle eta bertsolarien gai-emaile, berriz, «Jainkoak dakien toki guztietan ibili naiz bertsolariekin, gai-jartzaile batzuetan, epaimahaiko besteetan», esan

zuen. Egia zen: ehunka jaialditara joan zen aurkezpenak egitera, bertsolariei lagundu eta ahal zuenik ondoena elkarrekin xaxatzera. Urtero egin ohi zen *Bertsolarien emazteen egunean* meza-emaile eta hizlari ere bera izaten zen gehienetan. Hamaikatxo bertsolariren ezkontza eta ospakizunetan ere izango zen, seguru asko.

Bat-bateko bertsorik kantatzen al zuen galdetu eta, «Lardaskatu-edo egiten diat, bai; baina bertsoak kantatzeko grina baino gehia-



Artzain etxolan (Urepele), Daniel eta Kaxi Aizpuruarekin

go bertsoak entzutekoa eta jasotzekoa izan diat nik», esan zigun.

Bertsolari zaharrak bezala gazteak denak maite zituen hark. Eta gazteei buruzko iritzia eskatu ezker, «Oraingoak eta lehengoak bezalaxe gustatzen zaizkidak bertsolari gazte hauek neri, nahiz espresio asko oso arrotzak diren niretzat, nahiz eta bertsolari gazteen argota arrotz antza izan niretzat askotan» aitortzen zuen. Amurizari buruz, berriz, zera idatzi zuen 1980ko urtarrilaren 6ko finalaren ostean:

Gero eta ikasiagoa den gizartean, gero eta ikasiago izan beharko du bertsolariak ere. Baina ikasteak, edo lantzeak, ez diola gaitzik egiten garbi erakutsi du txapelketa honetan Amurizak. Berezkoak behar du lehenik. Baina berezkotasuna eta landutasuna ez direla elkarren etsai erakutsi du bertsolari bizkaitarrak.

Bertsolaria eta bertsolaritza zenbat maite eta miresten zuen ikusteko, aski da Euzkitzek egindako elkarrizketa batean zioena gogoratzea: «Bertsolaria, orakulo, kritiko, kulturgile izan da, eta ez nolana hiko. Gaur, igarle bezala, itzala galdu du, dibertitzaile bezala ere bai; baina ez balio ez duelako, mila kontrario sortu zaiolako baizik. Niri Garcia Marquezek balio dit, baina bertsolariak ere bai. Garcia Marquezek bakarrik balio dionaren gustuak erabat galdu du, pobretu egin da, apreziazio ahalmena murriztu zaio», esan zion (*Eguna*, 1987).

Lau jainko

Bai, lau jainko zituela esan zigun aspaldi egindako elkarrizketa batean. Sinismen handiko gizona izaki, 1) Zeruetako bere Aita Jainkoa maite eta errespetatzen zuen guztien gaitetik, apaiz izateko eman zion aukera ordainezineko dohaina zela beretzat aitortuz. 2) Osaba *Orix*e ere maitea zuen gogotik. 3) Joxe Mari Agirre *Lizardi* poeta fina zen hirugarrena; eta, batez ere, 4) Fernando Aire *Xalbador* zeruetatik gora jasoko zuen beti. Urepeleko artzaina aipatzen zuen baikoitzean —eta pentsatzen nago, Mitxel Labegiereren kantak dioen bezala, «nonbait balinbada zeru/ gure haurra da aingeru», hantxe izango dela Gaztelukoa, bere maiteekin solasean eta bertsotan— ahoa betetzen zitzaion. Xalbador handiaren miresle sutsurik inor izan bada, Aranalde izan zen, noski. Eta «Sei urte badu aurten Xalbador hil zela, baina nekez pasako zait neri egun bat artzaiaz oroitu gabe», idatzi zuen behin (1982). Bere azkenengo orduetan ere, hiltzen zegoela, Xalbadorren bertsoak kantatu zituen, anaia Luisek pentagrama irakurtzen zion bitartean.

Noiz eta nola Xalbadorzaletu zen? Euskaltzaindiak antolatu zuen gerra osteko lehengo Bertsolarien Txapelketa nagusian Donostian ezagutu zuen, 1960ko abenduaren 18an. Bere lagun batzuekin joan zen txapelketa hartako saioa entzutera, eta ondoan zeuzkaten aizarnar batzuk han ari omen zi-

ren Basarri gora eta behera, zorutzen. Joxe Mari berotu zen ordea, eta «Tutik ez dakizue bertso kontuan! Nola arraio konparatuko dituzue ba Basarri eta Xalbador? Por favor, hombre!», eraso zien, bero. Eta aizarnarrak ahoa bete hortz, mutu utzi omen zituen, artean ez zuten ezagutzen-eta Xalbadorren bertsogintzarekin guztiz liluratu zen apaiz gazte hura.

Egun hura eta ondorengo urteak ere halaxe pasatu ziren. Baina gero, «1967an joan ginen gu bere etxera lehenengo aldiz. Neu eta beste hiru apaiz ginen, eta betebeharrak edo eginkizun batekin joan gintzaizkion: txapelketan entzundako txistuen ondoren, gure miresmena agertu eta gure animoa ematea, alegia. Geroztik zenbat aldiz joan ote nintzaion! Xalbadorrekin erabateko sintonia izan nuen nik. Ez dakit berak miresmen ninduen, baina bai lagun handi izan

eta asko estimatzen ninduela. Nik, nire adiskidetasunaz gainera, miresmena nion» idatzi zuen (*Eguna*, 1987.10.20).

Joxe Marik ez zuen pasaporterik aldi batean, eta ezta izateko esperantzarik ere. Baina, zer egingo eta, *Zeruko Argia* astekariko zuzendari zen aita Beizama —Kaietano Ezeiza— kaputxinoari bere pasaportea eskatzen zioten. Halaxe pasatzen zuten muga, eta Urepelera joan, egunpasa, behin eta berriz. Eta uda garaia bazen, belarrak ontzen, ganadu jatekoak egiten eta horrela laguntzen zioten Ferrandori. Udazken edo neguan, berriz, basotik az-



Aranalde eta Xalbador



Kalzakorta, Zavala eta Aranbururekin. Xabier, 2002



Aranburu eta Kalzarkortarekin. Xabier, 2002

piak egiteko garoa eta orbela, edo sutarako egurra ekartzen laguntzen zioten, goiz partean. Eta bazkalondoan, kontu-kontari egoten ziren sutondoan, Xalbador kontalari aparta zen-eta.

1975-1976an Xalbador bere *Odolaren mintzoa* liburua prestatzen ari zen garaian Fernando Artola *Bordari* eta Antonio Zavalarekin joan ohi zen. Eta bakoitzak bere zeregin zehatza zuen: A. Zavala, Xalbadarren idazkari zen, hark esandakoak zuzen apuntatu edo haren eskuidatziak jaso eta makinaz idatziz. Bordarik, taldeko errege magoa izaki, egun-pasa egiteko behar zirenak eta familiarentzat erregaliak eraman ohi zituen. Joxe Mari Aranalde, berriz, hegoaldeko enbaxadore ofiziala zen, eta lehenengo Leoniri eskuan muin eman, eta gero Xalbadorri eskua ematen zion begirune handiz.

Euskaltzalea

Ez zen nolabaitekoa Joxe Marik euskararekin zuen atxikipena eta konpromisoa. Eta nekez onartuko zuen euskarari mespretxua egin, edota euskara bai ala ez ezbaian hasten zenaren argudiorik, eta holakoekin azkar haserretu eta egoskortzen zen gainera. Euskara onaren jabe zen, ume-umetatik. Baina gehiago nahita, etxeko euskara lantzen saiatu zen beti.

Euskara ikasi, euskaraz kantatu eta irakurtzen ikasteko laguntzaile onak izan bide zizuten hark eta haren lagunek Saturrarango urteetan. Aranaldek «Andoni Basterretxea: *Ene Ondarru*» (Auspoa, 270) liburuan aitortzen duenez, hilero bisitatzen zuten don Andoni, eta «Ordukoa dugu guk gure ezagutza don Andonirekin. Eta berak erakutsi zizkigun gerora idazle izango ginen askori euskarazko lehen letrak. Eta zenbat euskal kanta! Eta zenbat izar gau oskarbietan!». Horrez gainera, euskara ikasi eta irakasten ari zen don Anton Garrorekin gramatika ikasteko aukera izan zuen, haren euskal liburutegi bikainaz ongi baliatzeaz gainera.

Apaiz lanetan, eta Lizeoko irakasle zela, euskarari eta euskal kulturari guztiz lotuta bizi izan zen beti. Eta asko irakurtzen zuen, non-baitetik denbora sortuz. Nekez baztertuko zuen hark euskarazko egunkari eta hilabete-karirik, Jabier Kalzakorta irakasle eta taldeki-deak idatzi zuen bezala:

Ez dut ezagutu inor, euskal kulturari, bera bezalaxe egunean eguneko aldizkari, egunkari eta berrien peskisan egon den euskaltzale suharrik. Euskal idazle gazte eta berrien azken lanak irakurtzen zituen. Eneko Bidegainen eleberriak, Bernardo Atxagaren eleberriz zein ipuinak, Iban Zalduaren ipuin-liburua zein azken bertso-saioetako berriak zituen hizpide... Euskal kulturari «egunean» egotea maite zuen Joxe Marik, azken berrien talaian begirari egotea, talaia begi-ernea eta ohartu bat bezalaxe. Inor kritikatu ezagutu badut euskaldunen artean, bera izan zan zalantzarik gabe. Hala ere, harrigarria egiten zitzaidan hain kritikatu izanik hain optimista izatea.

2004ko Xalbador Eguneko bazkarian

Euskaldun helduei euskara erakusten ere saiatu zen; eta besteak beste, horretarako egin zuen 1985ean Euskal Telebistak eman zuen *Berbetan* teleaio hura, gero beste aurkezle batzuk hartu bazuten ere.



Mikel Atxagaren emazte Maria Anjeles eta alaba Garazirekin, 1976

Euskaltzaindian eta Aholku Batzordean

1975eko ekainaren 27an izendatu zuten Euskaltzain urgazle. Eta Akademia honen eskariz, Herri Literatura batzordeko kide izan zen urte askoan, Alfonso Irigoyen, Juan San Martin, Juan Mari Lekuona, Antonio Zavala, Emile Larre, Jesus Mari Etxezarreta *Izazpi*, Pello Esnal, Joxe Ramon Zubimendi, Antton Aranburu, Joxemari Iriondo eta Jabier Kalzakortarekin batera.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako *Euskararen Aholku Batzordeko* kide izan zen, 1982ko urtarriletik 1988ko otsailera.



Aranalderen hileta Gaztelun

Mahaian eta jokoan

Mahaian eta jokoan ezagutzen omen dela egiazko kabaileroa esan ohi ziguten ikastetxe-ko gure zuzendariak. Eta, hala bada, Joxe Marik mahaian eta jokoan zuen handitasuna aipatzea beharrezkoa dela uste dugu. Izan ere, lagunekin pilotan ari zelarik, menderakaitza zen, gogorra. Gauzak ziren bezala, edo berak uste zuen bezala argi eta garbi egin nahi izaten zituen. Galdetu bestela asteazken eta larunbatetan bi-bitara haren kontrario izan ohi ziren anaia Luisi, Jesus Mari Mujikari, edo Mikel Atxagari. «Basurdea baino domakaitzagoa huen!», entzungo diezu. Denak ere ez ziren nolanhiko etsaiak jokoan. Ondo gogoan hartu genuen Xabier Lete eta bioi Zarautzen eman ziguten egurra!

Mahaian, jan-edanean, mokofina zen. Beti neurrian ibiliko zen ordea. Bere edaririk maiteenak, txakolina, sagardoa, eta ardoa. *Espaniako koñak xahar* pittin bat ere bai, hartu behar bazen behintzat; eta Frantziakorik izatekotan, xanpaina. Mokofina zen, baina bere lagunentzat otordu-prestatzaile harri-garria. Artista hutsa zela esango du hura ezagutu zuen edonork, su-gainekoak egoki egiten, mahaia prestatzen eta otorduko detaile guztiak zaintzen.

Etxeko zereginetan guztiz autonomia zela esaten dute haren senideek. Eta garbitasuna egiten, arropak garbitu eta plantxatzen, eta behar zenean josten ere mutila zen. Umeza-lea berriz hortik honakoa! Haren ikasleei,

edo Añorga eta Gazteluko bere iloba maitei galdetu bestela. Iloba eriari laguntzen Alemanian, Gazteluko baserriko lanetan eta gaueko labe-suan ogia egin, eta gero Lizeoan klaseak ematen zitezkeen denak egin zituen. Guzti horregatik esango zioten nonbait «Jainkoak bakarrik zekik andrearen batek zer senar eta haurren batzuk zer aita galdu zuten hi apaiz egin hintzenezan!».

Azkenik, aipatu behar dugu Aranaldearren urtebetetze eta familiako ospakizunen antolatzaile ere bera izaten zela; eta gero, gurasoak hil zirenean bere eskuetan hartu zuen zeregin hura dena koinata Lurdesi utzi ziola heriotzako orduan, aurrerantzean ere elkartuta jarrai dezatela eskatuz.

Agur eta ohore

2005eko iraila etorri zen, eta udazkeneko hego haizetan herio gaiztoak eraman zigun, denok noraezean utzita. Eta orain, agur eta ohore egin nahi genioke Gazteluko semeari, eta bihotzez eskerrak eman berrogei urte pasa honetan lagun eta lankide izateko eman zigun aukera ederragatik. Agur eta ohore, Ernest Alkhat bertsulariaren ahapaldi bat aipatuz (*Herria*, 2005.10.16), eta bere lau jainko maiteekin zeruetan betiko zoriona izan dezala opaz:

Agur bat, Koxe Mari, zu adixkidea;
lagunekin gozatu gaur goiko aldea.
Dohain ta omorea ez atxik gordea,
sail berria dukezu, agian, hobea.
Bertsutan zabal guri zeruko bidea.



Aranalde Gazteluko hilerrira

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Joxe Mari Aranalderen koinata Lourdesi, Inazio eta familiari, eta anaia Luisi

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2006ko iraila

Ale-kopurua: 2.100

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2459-2 (Lan osoarena)
84-457-2460-6

L.G.: BI - 1851-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística